

EUSKAL TELEBISTA, GOLKOKO GERRAN

Rosa M. Martín Sabarís

Gizarte eta Informazio-Zientizen Fakultateko Irakaslea

Azkenaldi honetan telebistako albistegietan urruneko gertaerek hartu dute aurrea. Berauen artean Golko Pertsiarreko gerrak paper nagusia izan du. Hasierako uneetan inolako aurrikuspenik egon ez bazen ere, kazetari batzuren borondate ona-profesionalitateari eta txiripari esker katea handiek bezain ondo bete zuen ETBk gerrari buruzko emankizuna. Munduko gainontzeko beste kateetan bezalaxe, ETBn mekanismo ez-ohizkoak erabili ziren gerraren jarraipena egiteko. Lehenik, CNN kate estatubatuarraren irudiak eta datuak eskaini zituen bere ikusentzulegoaren truke. Bigarrenik, FORTAko beste kateekin batera eratutako sarea erabili zuen, horrela gastuak erabat murriztuz eta erdarazko kateen despliege handiaren itxura emanez. Azkenik, albiste-aurrerapenek, platora eramandako jakintsuek eta grafismoko lan bikainek osatu dute produktua. Guzti honen gaintetik, beste kateen ezaugarri berberak azaldu ditu ETBk: iturri ofizialen nagusitasuna, daturik eza eta informazioaren espektakularizazioa, kazetariaren figuraren mitoak suspertzea. Eta, euskararen gaintetik, erdararen nagusitasuna.

1990.eko udan Golko Pertsiarreko gatazka hasi zenetik, komunikabide guztiek, baina telebistek batez ere, gertaera horrek eman litzakeen posibilitate informatiboez pentsatzeari ekin zioten. Egunkarietan, agentzia erraldoiek prestaturiko erreportaiak erreproduzitu zituzten; bertan, beste medio bati publizitatea egiten zioten, telebistaz zuzenean emandako lehen gerra izan zitekeela iragarritz. Mendebaldeko demokrazien beste garaipen bat, informazioa emateko eta jasotzeko eskubidea bikain gauzatzen bait zen, gobernuak edota militarrek hartzen zituzten erabakiak une berean ikus bait zitezkeen. Eta abar. Horregatik izan zuen hain hedadura handia gerra telebistaz zuzenean ikusteko posibilitateak, galdutako posibilitateak.

Komunikabideen barrena ere aldaketa garrantzitsuak gertatu dira; telebistak Golkoko gerra baino lehenagoko garaia eta gerokoa dituela esan du baten batek. Gehiegikeria dirudien arren, egia da telebisten arteko lasterketa nekagarria izan dela. Handiak elkarren lehian ibili dira, eta txikiengatik, ETBrentzat ere bai, ikusteko eta hobetzeko, handien itxura hartzeko alegia, bidea izan da. Guztien gainetik, CNN nagusitu da, eta berau da gaur telebistako profesionalik gehienengatik ereduak. ETBren ahoa ere handitu egin da CNNko konexioaz hitz egiterakoan eta CNNren irudiak eta sasi-informazioa erabili duelako, harro agertu da.

Hasierako zurrunbiloa

1990.eko azaroan FORTAko telebistetako albistegietako zuzendariak bildu ziren Madrilen, gerrari buruzko planifikazioa elkarrekin egiteko. ETBko orduko arduraduna, Mikel Lejartza, oporretan zegoen, eta ez zuen lehen bilera hartan parte hartu. Bertan, amankomuneko sare bat ezartzea erabaki zen.

Gero, ETBko erredaktoreburuek eta koordinatzaileek astero egiten dituzten bileretan, eta gerra hasi baino aste pare bat lehenago, tratamendu berezia eman behar zela aipatu zen, mapak eta grafikoak eginez eta komentaria bat platora eramanez. Bestalde, aprobe-txagarritzat ikusten zen CNNko instalazioetan ETBk bekariorik bat, -Iñaki Bizkarra kazetaria- izatea.

Gauzak horrela, urtarrilaren 15a iritsi zen, eta ultimatumaren eguna izan arren, ETBko kazetari eta ekipo guztiek ohizko moduan funtzionatu zuten, inolako txanda berezirik aurrikusi gabe. Gauean, azken albisteak egiteko gelditzen diren kazetariak irteerarako bidean zeudela, tele-tipoetako txirrinak hasi ziren jotzen. Gerraren hasiera zen. ETBko erredakzioan lau zapabost kazetari zeuden, eta eurek hartu zuten erabakia: bertan gelditu, lanean hasi eta arduradunei etxera deitu. Albistegietako zuzendariari New York-en zegoen Iñaki Bizkarri iragarri zion gerra hasia zela.

Lehenengo gau hartan, txiripari esker –bost minutu beranduago ez bait zen inor geldituko erredakzioan, eta seguruenik hurrengo goizeko bederatzietan hasiko zatekeen gerra ETBn– eta kazetari batzuren borondate ona-profesionalitatea (maiz parekatzen diren kontzeptuak) delakoari esker, gerra hasi bezain pronto hasi zen ETB albiste-aurrerapenak, eta CNNren emanaldia zuzenean eta euskaraz –gau hartan soilik– eskaintzen.

Prebisorik gabeko lehenengo gau haren ondoren, ETBk gerrari buruzko jarraipen zabala egin zuen, horretarako hiru zutabe erabiliz: CNN, FORTA eta ETB bera.

CNN, nonnahi

Munduko beste komunikabideetan gertatu zen bezalaxe, gerrari buruzko informazioa oso bestelakoa izango zatekeen CNN gabe. Berau izan zen informazio guztien ardatza, gidaria. Gehien erabilitako iturria, batez ere irudiak hartzeko, baina baita datuak eskuratzeko orduan ere.

Azken bi urteetan ETBk CNNren irudiak erosteko izan duen kontratuaz gain, Golkoko gerran bestelako akordio bat sinatu zen, ETBk emisiorik ez zeukan orduetan, CNN pintxatzeko¹.

Gerraren hasierako hamabost egunetan ETB CNN katea estatu-batuarrarekin lotuta egotea ez da

garrantzi gutxiko kontua. ETBko zuzendaritzak arrazoizko azalpena aurkitu zuen: zerbitzu publiko batek albiste-katea bat eskaintzen du, une horretan hiritarren buruan bide dagoen gaiaz informazio zabala emateko. Badira, ordea, bestelako irakurketak: beste katea bati lotzeak horrekiko adostasuna adierazten du normalean, nahiz eta agerikoa ez izan. ETBren anagramarekin agertzen diren irudiak eta soinuak ETBrenak bailiran ikusten ditugu, eta ikusi behar ditugu. CNNk gerra honi buruzko informazioa saldu dio ETBri; ETBk bere ikusentzulegoa CNNri.

Urtearen amaierako balantzean, ETBko albistegiaren ordu-kopurua askoz altuagoa izango da aurten, CNNrekiko konexioak etengabeko emanaldia posibilitatu bait du. Lehenengo aldiz hamar urteetan, ETBk ez du emisioa moztu hainbat egunetan zehar. Baina ez mozte honek izakera sinboliko hutsa dauka ia-ia. Bere uhinak laga dizkio beste igorle bati, bere bi kanaletako batean jatorrizko soinua ere utziz.

FORTA: sare-lanaren esperientzia

Estatu espainoleko telebista autonomikoen elkarte funtsezkoa izan zen, katea txikiek handien itxura eman ahal izateko. Telemadrid-eko Teresa Aranguren Tel Aviv-en izan zen, Canal Sur-eko kazetaria Amman-en, eta TV-3koa Riad-en. ETBko zenbait kazetarik ETBk ez zuela inor bidali Golkora

kritikatu zuen; albistegietako zuzen-dariak hauxe argudiatu zuen orduan: sare horretan ETBk Brussela eta New York-eko korrespontsalak jarri zituela. Goizero, telebista bakoitzak berea eskaini, eta besteenaren berri hartzen zuen, eta gero, eguerdira aldera, mikrouhinen bitartez jasotzen ziren erositako irudiak.

Katea handien itxura ematea, eta ez informazioa eta datu berriak ematea, helburua izanik, FORTAko korrespontsalek egiten zituzten kamara aurreko agerpenak sartu ziren ETBko albistegietan. Bideo hauek arrotz samar azaldu ziren, berauen estiloa oso desberdina bait zen (statement-a edo kamara-aurrekoa amaitzeko, "Teresa Aranguren, Tel Aviv-etik" esaten bait zen, esate baterako). Erdarazko albistegiek, honela, izugarriko despliegearen itxura eman zuten, sinesgarritasuna ere hundituz.

ETB: ahaleginak eta emaitzak

4.1. Euskal Herriko korrespontsalak aparte utzita, ETBk gerraren jarraipena egiteko jarritakoen kokapena oso esanguratsua da. Madrilgoak Defentsa Ministeritza espainolaren jarraipena egiteko, Brusselakoak OTAN erakundearena, eta New York-ekoak ONUrena. Guztiak Golkotik oso urrun, baina esanguratsua goa oraindik, guztiak iturri ofizial eta instituzionaletatik hurbil. Egia da gerraren kontrako

mugimenduen berriren bat eman zutena, baina gertaeren prebisioa gerraren aldeko tokietan ekipo finkoak jarriz egiten baldin bazen, aireratuko ziren albisteek honelakoak izan beharko zuten derrigorrez.

ETBk egindako "ahalegin berezia"ri dagokionez, hauxe esan behar da: Madril eta Brusselako kazetariak lehendik, betidanik, zeuden bertan, eta gerra zegoen bitartean, ez zuten bestelako notiziarik izango seguruenik. Gerra egon ala ez egon, lanpostu berean egongo ziratekeen. New York-eko kazetaria, Estatu Batuetan CNNn beka egiten ari zen, eta ez zuten gerraz informatzera bereziki bidali.

4.2. Ahalegin berezia izan zen, ordea, gerraren lehen egunetik egunero, euskaraz zein erdaraz, lauzpabost *albiste-aurrerapen* ematea. Informazioa boletín batetik bestera berriztatu, aurkezlea jarri eta estudioko lana zortzi-hamar aldiz egiteak ahalegin handia eskatzen du. Beste kontu bat da boletín horien efikazia eta ikusentzulego-kopurua, agian, ez zela behar bezain handia izan, bi arrazoiengatik batipat:

- Ikusentzulegoak ez zuen boletín horien berri izan berandurarte, eta hamabost egunetako epea gutxi da ikusentzuleen ohiturak aldatzeko. ETBren ikusentzulea ez dago ohituta goizeko 8.15etan, 8.45etan, edo 12etan minutu gutxiko albistegiak ikusten.

- Telebista ETBko albiste-aurrerapenak ikusteko piztu ez, baina kateen arteko zapping-a egiten ari zenak ere eskaintza zabalagoa izan zezakeen beste kateetan.

Albiste-aurrerapen hauek ahaleginari ondo egokitutako emaitza izan ziren, eta erredakzioan aurrarapenak betirako uztea komentatu zuen baten batek. Albistegietako zuzendariak, hala ere, argi utzi zuen salbuespenezko egoeran egiten zen ahalegin berezia zela soilik.

4.3. Aparteko lana izan zuten grafismo arloko langileek ere. Katea handiek inposatutako modari jarraituz, grafiko eta mapa koloredunak barra-barra agertu ziren ETBn ere. Bertako grafiko eta mapek eta beste telebistetakoek amankomuneko ezaugarriak izan zituzten:

- formari dagokionean, oso landuak. Teknologia digitalari esker, bisualki erakargarriak diren mapak une batean egin eta berregin daitezke, eta bertan militarrek hartutako erabakiak grafikoki aurkeztu.
- edukiari dagokionean, berriz, mapa horiek ezer gutxi kontatu zuten, efektibo militarren kokapenaz hitz egin ziguten, eta ez hildakoez, edota gerraren arrazoiez. Edozein kasutan ere, logika militarrean murgildu gintuzten, estrategi jokoan jolastera gonbidatuz.

- espero zitekeen bezala, grafismoaren lehen beharrari erantzun zioten, hau da, erreallitatea sinpletu egin zuten, zuriz eta beltzez tintatu, erdiko neurriak baztertuz.

4.4. Erreportaieran eta konexioetan ematen zen azaleko informazioa sakondu nahian, "jakintsu kolaboratzaile" batek hartu zuen parte albistegietan. Bideoetan agertzen ziren iturriak instituzional eta ofizialak (ez gerraren kontrakoak) baziren, platora eramandakoa ere halakoa izan zen. Teleberri albistegian, Patxi Aldekoa, UPV-EHUko Nazioarteko Harremanen katedraduna, -une hartan errektoreordea-, izan zen enkargua jaso zuena. Orokorrean, komunikabideetan azaldutako datuek, eta batzutan eritziren batek, osotu zuten "jakintsuaren" diskurtsoa; albistegi batean, halere, komunikabideek esandakoa gaitzetsi zuen, ikuspegi triunfalista eskaintzen zutela eta biktimez hitzik ez zegoela gogoratuz.

Jakintsuek denbora luzea eta erritmo motela behar izaten dute euren jakintza osotzeko, eta unetik unera aldatzen ari zen erreallitateari buruzko datu gutxi eskaini zezaketen; sakoneko arrazoiak aztertuz, denboran atzera egiten bazuten, ikusentzuleak deskonektatu egiten zuen. Bide egokia, seguru aski, gertatzen ari zenaren interpretazioa eta etorkizuneko arrastoak ematea izango

zatekeen, baina zeregin arriskutsua da, ekialdeko herrietan izandako gertaerak ikusi ondoren.

4.5. Iurretako erredakzioan lan egin zuten kazetariak betikoak izan ziren. Kontrato berezia egin zitzaion lehen bekario moduan aritutako baten bati; bekario egondako bat izan zen, hain zuzen, hilabeteko kontratu batez gau osoa eman zuena ETBn. Egia da beste arloetako kazetari batzu gerrako informazioa egiteko taldean sartu zirena, baina horrek ez zuen suposatu ahalegin osagarri bat, albistegiaren parte nagusia gerrak betetzen bait zuen, eta ez bait zen beste gaietarako denbora luzea geratzen. Beraz, birbanaketa egin zen, bai albistegiaren denboran, baita langileei zegokienean ere.

Erredakzioan beste kateak erakusten dituzten monitoreak beti piztuta egon badira, gerraren hasieran jendearen begirada eta arreta erakarri zuten. Horrez gainera, etengabe erredaktore bat aritu zen CNN zuzenean entzuten eta zatika grabatzen. Guztien gainetik, orohar, sentimendu bat nabarmendu zen kazetarien artean: kazetaria izatearen mamia izan zitekeela ordukoa, datuak gertatzen zirenetik gutxira emateko posibilitatea, adrenalina inoiz baino gehiago sentitzea, eta abar. Kazetaririk gehienek zerbait garrantzitsua egitearen sentsazioa izan zuten, eta ardura, erantzukizuna. Guzti hauek *ideologia profesionalistaren* adibideak dira. Lan egiten gustora sentitu ziren

ia kazetari guztiak, eta mezulari hutsen papera jokatu zutela gogoratu diete-nean, deserosotasuna etorri da, eta justifikazioak, "ez zegoela ihes egiterik", "zentsura ebitaezina zela", eta abar.

4.6. ETBko informazioaren arloan Golko Pertsiarreko gerrak beste ondorio bat ere ekarri zuen. Gasteizko gobernuaren osaketaren gaiak bigarren mailan gelditu behar izan zuen. Komunikabide guztietan notizien aukeraketa eguneroko negoziazioaren emaitza denez, bestela albistegiaren izarra izango zatekeenak espazio gutxi bete zuen. Honek beste polemika baterako bidea zabaltzen du: bertako gobernu osotzeko zeuden arazo larriek, ala guregandik oso urrun gertatzen ari ziren istiluek izan behar dute albistegiaren titularra?

Euskarazko informazioaren tratamendua

Beste kateetan langile, bitarteko tekniko eta diru gehiago izanda, gerrari buruzko informazioa hobeto egiteko aukera zeukaten, zalantzarik gabe. Gainera, militarren zentsurak, iturri urriek eta ohizko errutinetara (iturri ofizialen erabilpena, subjektu nagusien lehentasuna, eta abar) moldatu nahi izateak berdindutako informazioa ekarri zuten medio guztietan. ETBk, hala ere, arrazoi garbi bat zuen berea egiteko, beste kateetatik bereiz zezakeen arrazoia, hizkuntza alegia. Ikusentzuleak informazioa euskaraz

jasotzeko nahia izan zitekeen ETBren bertsioa egiteko arrazoia, erdaraz beste katea batzu ari bait ziren. Honetan ere, besteetan bezalaxe edo akaso gehiago, euskaraz egindako informazioa galtzaile irten da.

Honelako kritikak zabaldu ziren, bai erredakzioan eta baita kalean edo egunkarietan ere, CNNrekiko konexioa gaztelerara bakarrik itzuli zenean. Gerraren lehen gauean, ordea, euskarara bikoiztu zen CNNren emanaldia, bertan zegoen kazetari batek ingelesez eta euskaraz zekielako. Mikel Lejartzaren esanetan, mila pertsona inguruk ikusiko lukeen emanaldia bikoizteko egunero behar ziren lau itzultzaileei ordaintzea ezinezkoa zen.

FORTAko kideekin hartutako akordioa ere bide berberera eramaten zuen, euskarazko informazioa aintzakotzat hartu gabe, Madril, Katalunia edo Andaluziako korrespontsalen kronikak ezin bait ziren euskaraz izan. Euskarazko albistegiek, beraz, ez zuten aurpegi askodun despliege-itxura eman.

Era berean, platora eramandako "jakintsuak" erdaldun hutsak izan ziren. Gerrari buruzko informazioa euskaraz jaso nahi duen ikusentzuleak ez bide du "eritzi kualifikaturik" entzuteko nahirik. Edo beharrik, Martxelo Otamendik, ETBko langileak, CNNko emanaldia ez euskaratzeaz idatzi zuen bezalaxe.

Oharra

1.- CNNrekiko akordio honegatik ETBk 250.000 pezeta inguru ordaindu behar izan ditu egunero.

Horrez gain, ETBk CNNko "World Report" deritzan saioan hartzen du parte, hileroko Euskal Herriari buruzko notiziak bidaliz. Azkenik, CNNn hiru hilabetez bekario gisa lan egiteko hitzarmena dago. ETBk New York-eko korrespontsala zioenean, CNNn zegoen bekarioa izendatzen zuen.